

# PATRAK



- **A**itona, aitona, zer dira kaxa arraro horren barruan dauden zomorroak? Leku guztietara ari dira biraka... Begira! Orain ilaran jarri direla dirudi, eta orain taldeak osatzen dituzte! Zein dibertigarriak diren!

- Patrak dira. Zuk diozun "kaxa arraro" hori aspaldi eman zidaten, ia ez nintzen gogoratzen. Entzuten jakinez gero, istorioak, ipuinak eta hainbat kontu barregarri kontatzen omen dituzte patrek.

- Aizu, aitona, zuk entzun al dituzu?

- Ez, nik ez dut inoiz patri entzuten ikasi. Ez dizute berehala hitz egiten. Esfortzua eta saiatzeko gogo behar da.

- Gorde al dezaket nik kaxa?

- Bai, noski, ea zuri hitz egiten dizuten.

Rajeevek eta haren anai-arrebek oso gogoko zuten aitonaekin hitz egitea. Beti kontatzen zizkien istorioak.

Rajeevek hamar urte ditu, eta bere familiaren abereez arduratzen da. Horixe da bere lana, eta gustukoa du gainera, baina denbora asko igarotzen du bakarrik. Hori dela-eta, aitonaekin hitz egitea atsegin du gauero, lotara joan aurretik.

Duela egun batzuk, aspalditik gordeta zuen otarre batez gogoratu zen aitona: gauzez betetako otarre batez, hain zuzen. Otarrea Rajeevi eta haren anai-arrebei erakutsi eta bertan arakatzen utzi zien. Rajeevek kaxa arraroa gorde eta, harrez gero, berarekin darama beti.





**A**bereekin dagoenean, denbora luzea igarotzen du kaxari arreta handiz begiratzen, barruan dauden zomorrotxoek esan nahi diotena entzuteko prest. Alabaina, zomorroi entzun gabe itzultzen da egunero etxera.

**R**ajeeven familia Indiako mendietako herrixka txiki batean bizi da. Hilean behin, herrira jaisten dira beren produktuak saltzeko eta behar dituzten beste batzuk erosteko. Rajeev aspaldian joan ez den arren, oraingoan amarekin joatea erabaki du. Hiru orduko bidea dute herriraino. Azken bost kilometroek errepidearekin bat egiten dute eta, zorte pixka batekin, kamioiren batek herriraino eramango ditu.

Hainbat gauza daude herriko azokan: espezia mota ugari, ehunak, arroza, barazkiak eta sasoiko frutak. Gainera, kolore bizietako arropaz jantzirik joan-etorrian dabilen jendearekin nahasteko aukera ere ematen du.

Gaurkoan, Rajeeven amak lagun bat ikustera joan nahi du azokako lanak egin ondoren, eta harekin joan behar izan du.

Herrian barna zebiltzala, hara non ikusten dituen! Hortxe daude kaxako zomorrotxoak, haurrez betetako etxe horretako hormari helduta. Bihotzondokoa izan du ia horiek ikustean, are gehiago haurrek patrei begiratu eta gauzak kontatzen ari zirela konturatutakoan.

- Ama, haur horiek entzun egiten dituzte, haiei gauzak kontatzen dizkiete!
- Zer diozu, Rajeev?
- Begira zomorrotxo horiei, gauzak kontatzen dizkiete haur horiei.
- Jakina, seme, Patrak irakurriz gero, gauzak kontatzen dizkizute.
- Patrak irakurri?
- Bai, Rajeev, irakurtzea patrek esan nahi digutena ulertzea da. Tamalez, aita, aitona eta ni neu ez gara hori egiteko gai. Inoiz ez genuen eskolara joateko aukerarik.
- Ama, nik patrak entzuten ikasi nahi dut.
- Rajeev, seme, gu mendian bizi gara. Ez dugu dirurik zu eskolara eramateko. Gainera, zuk abereak zaindu behar dituzu gu lanean gauden bitartean. Gutxienez Khisna anaia hazi eta abereak zaintzeko gauza izan arte.
- Baina, ama... nik ikasi egin nahi dut... Gainera, abereekin nagoenean denbora asko daukat eta patrak irakurtzea gustatuko litzaidake...





**E**txera itzultzean, amak aitarekin hitz egin zuen.

- Agian egokia izango litzateke familiako norbaitek irakurtzen ikastea. Rajeevek herrian ikasteko modua aurki genezake. Azken finean, berehala helduko da hotza eta ezin izango ditu abereak larrea atera.

Biharamunean, ama herrira jaitsi zen Rajeevekin. Lagunaren etxera joan ziren, neguko hilabeteak bertan igaro ote zitzakeen galdetzera, elurrak herrixka erabat isolatuta uzten baitu. Luzaroan hitz egin dute, amaren laguna ere oso behartsua baita; alabaina, azkenean baiezkoa eman dio amari, honako baldintza honekin: Rajeevek etxeko lanetan lagundu beharko die otorduen gastua ordaintzeko.

Ondoren, eskolara joan eta andereñoarekin hitz egin du amak. Rajeevek haur langileentzako edo eskolara normaltasunez joateko aukerarik ez duten haurrentzako proiektu batean ikasten hasi beharko du. Saiatzen bada, behar adina ikasiko du azterketa bat gainditu eta Lehen Hezkuntzako titulua lortzeko. Eta berak nahi izanez gero... ikasten jarraitzeko.

Harriduraz beterik, Rajeevek patrez betetako “kaxa” ugari ikusi ditu eskolan: kitaba deitzen diete. Horiek ulertzen ikasteko irrikan dago.

Lehen elurrak iritsi zirenean, Rajeevek guztiak agurtu eta herrira jaitsi zen. Bazekien bere bizitzako etapa berri bat hastera zihoala.

Gogor saiatu zen hasieratik, letra guztiak eta horiek ahoskatzeko modua ikasiz. Oso goiz jaiki behar zen eskolara joan aurretik etxeko lan guztiak egiteko. Eskolan igarotzen zituen eguneko ordu gehienak. Alabaina, eskolatik ateratzean, Rajeevek ikasten jarraitzen zuen, ahalik eta lasterren irakurtzen ikasteko.




**H**otz-garaia amaitu zenean, Rajeevek eskola utzi zuen. Andereñoak ariketak eman eta liburu batzuk utzi zizkion herrixkan ikasten jarrai zezan; horrela, abereak larrean zebiltzan bitartean, Rajeev bere liburuekin aritzen zen, eta orduak ziztu bizian igarotzen zitzaizkion. Egunetik egunera hobeto irakurtzen zuen.

Eta ez irakurri soilik, idazten ere ikasi zuen. Gauzak esaten dituzten zomorrotxo horiek sortzeko gauza ere bazen eta horrek azti handi baten antzera sentiarazten zion, mendi oso bat bost letra txikitan sartzeko gai baitzen.







**G**au batez, uda haren bukaeran, suaren inguruan eserita zeudela, Rajeevek aitona emandako liburua irakurri zion familiari: itsaso sakonean gordetako altxorren bila zebiltzan nabigatzaile ausartei buruzko istorioa kontatu zieten patrek gau hartan.

Negua berriz etorri zenean, Rajeev eskolara itzuli eta andereñoa benetan harrituta geratu zen haurrak ikasitako guztia ikustean. Baina Rajeeven asmoa egunetik egunera gehiago ikastea zen, bere bizitza eta familiaren bizitza hobetzeko biderik onena horixe zela konturatu baitzen.

